



Urretxuko udala



**PAGOETAKO UDAL IGERILEKUAN HARRERA, SARRERA ETA ARROPA
GORDETEGIAREN ZERBITZUA BETETZEKO 3 LAGUNTZAILE-ATEZAINEN
KONTRATAZIOA**

Kontratu mota

-
- Obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuak, aldi baterako (502) izango dira: %77ko lan-jardunaldia.
 - Kontratazioaren datak: 2023/06/16 - 2023/09/10
 - Soldata: 1.352,37 €/hileko izango da. Jai egunetan egindako orduengatik jai-eguneko plusa jasoko da, 7,72 €/orduko.
-

Lan eginkizunak:

-
- a) Instalazioak ireki eta ixtea, Urretxuko Udalak jendearen arretarako jarritako orduetan.
 - b) Erabiltzaileen eta bazkideen sarrera kontrolatzea, baita instalazioen erabilerarengatik egin beharreko kobrantzak egin ere.
 - c) Egunero diru kontaketa egitea, eta emango zaion kontu korrontean sartzea.
 - d) Instalazioak ondo erabili eta zaindu daitezen begiratzea, erabilera araudia betearaziz.
 - e) Erabiltzaileek instalazioak nola erabiltzen dituzten kontrolatzea.
 - f) Udalak izendatutako pertsoneri jakinaraztea instalazioetan gerta litekeen edozein gorabehera, edo erabiltzaileekin sortzen den edozein arazo.
 - g) Galdutako gauzen kontrola.
 - h) Oharrak eta deiak egitea megafonia bidez.
 - i) Erabiltzaileek arropa gordetegian utzitako gauzak kontrolatzea.
 - j) Puntualki garbiketa lanak egitea instalazioa txukun eta egoera onean mantentzeko.
-

Derrigorrez bete beharrekoak:

-
- Gutxieneko adina: 18 urte.
 - Gutxieneko prestakuntza maila: Eskola Graduatua, Bigarren Hezkuntzako Graduatua, Lanbide Heziketa 1. maila edo baliokidea.
 - Euskarako B2 tituluaren edo baliokideren baten jabe izatea.
 - Kontratazio aldian erabat libre izatea, hau da, 2023ko ekainaren 16tik irailaren 10era.

Merituak:

Derrigorrezko irizpide guztiak betetzen dituzten hautagaien artean, honako puntuazioa hartuko da kontuan aukeraketa egiteko:

1.- Deialdian eskatutakoa baino titulazio maila altuagoa	Gehienez 7 puntu
2.- Erabiltzaile mailan informatika ezagutza izatea	Gehienez 3 puntu
3.- Langabezian egotea, 2023/04/01a aurretik	Gehienez 3 puntu
4.- Errolda	Gehienez 5 puntu
Urretxun erroldatuta egotea 2023/04/01 baino lehen	5 puntu
Urola Garaia-ko beste herri baten erroldatuta egotea, 2023/04/01 baino lehen	2 puntu
5.- Jendearen harreraren eta lanpostuaren funtzioekin lotutako zereginetan egiaztatutako esperientzia	Gehienez 5 puntu
6.- Lanpostura egokitzeko elkarrizketa pertsonala (*)	Gehienez 3 puntu

(*) Elkarrizketa pertsonala egin ahalko zaie 1etik 5erako merezimenduen balorazioan puntuazio altuena lortzen duten 6 hautagaiei.

Behar bezala egiaztatutako merituak bakarrik izango dira kontuan.

Ez dira egiaztatu behar Urretxun erroldatuta egotea eta Urretxuko Udalean izandako esperientzia, baina bai adierazi behar dira, kontuan har daitezten.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria
- NAN-ren kopia
- Deialdian eskatutako tituluak egiaztatzea
- Curriculum eta adierazitako merituen egiaztagirak

Aurkezteko epea eta tokia:

- Eskaera-orriak 2023ko maiatzaren 15era arte (14:00ak bitartean) aurkez daitezke, Urretxuko udaletxeko erregistro nagusian.



Urretxuko udala



Epaimahaia

Epaimahaia modu honetan osatuko da:

Lehendakaria: Herritarrak batzordearen Lehendakaria.

Mahaikideak:

- Sustapen Soziokulturaleko kide bat.
- Administrazio orokorreko kide bat.
- Langileen ordezkari bat.

Idazkaria: administrazio orokorreko kide bat

Epaimahaiak balorazioa egin ondoren, puntu gehien lortu duten izangaiak kontratatzeko proposamena egingo du.

Lan-poltsa:

Baldintzak bete dituzten izangaiekin lan-poltsa osatuko da, lortutako hurrenkeraren arabera, eta kontratazioak dirauen bitartean sortzen diren beharrei erantzuteko erabiliko da.

Urretxun, 2023ko apirilaren 19an

Sin.: Jon Luqui Albisua
Urretxuko alkatea